

05/N zirkularra
2017-2018

INFANTIL MAILAKO EUSKAL HERRIKO TXAPELKETA, NEGUA 2017-2018

1. DATA: 2018ko martxoak 3 eta 4
2. LEKUA: Usabal (Tolosa)
3. ORDUTEGIAK: 1. eta 3. sesioak - zehazteke
2. eta 4. sesioak - zehazteke
4. IGERILEKUA 25metro eta 8 kale, kronometraje elektronikoarekin
5. PROBEN PROGRAMA

1. Sesioa (2018/03/03)			
1.-	400	Libre	Gizonak
2.-	400	Libre	Emakumeak
3.-	200	Bizkar-estiloa	Gizonak
4.-	200	Bizkar-estiloa	Emakumeak
5.-	100	Tximeleta	Gizonak
6.-	100	Tximeleta	Emakumeak
7.-	100	4 Estiloak	Gizonak
8.-	100	4 Estiloak	Emakumeak
9.-	4 x 200	Libre	Gizonak

2. Sesioa (2018/03/03)			
10.-	200	Bular-estiloa	Emakumeak
11.-	200	Bular-estiloa	Gizonak
12.-	100	Libre	Emakumeak
13.-	100	Libre	Gizonak
14.-	200	4 Estiloak	Emakumeak
15.-	200	4 Estiloak	Gizonak
16.-	4x200	Libre	Emakumeak

3. Sesioa (2018/03/04)			
17.-	200	Libre	Gizonak
18.-	200	Libre	Emakumeak
19.-	100	Bizkar-estiloa	Gizonak
20.-	100	Bizkar-estiloa	Emakumeak
21.-	400	4 Estiloak	Gizonak
22.-	400	4 Estiloak	Emakumeak
23.-	1500	Libre	Gizonak
24.-	4 x 100	Libre	Emakumeak
25.-	4 x 100	Libre	Gizonak

4. Sesioa (2018/03/04)			
26.-	50	Libre	Emakumeak
27.-	50	Libre	Gizonak
28.-	200	Tximeleta	Emakumeak
29.-	200	Tximeleta	Gizonak
30.-	100	Bular-estiloa	Emakumeak
31.-	100	Bular-estiloa	Gizonak
32.-	800	Libre	Emakumeak
33.-	4 x100	4 Estiloak	Gizonak
34.-	4 x100	4 Estiloak	Emakumeak

6. PARTEHARTZEA

6.1. MAILAK:

	GIZONEZKOAK	EMAKUMEZKOAK
INFANTIL	2002 eta 2003	2003 eta 2004

6.2. Denboraldi honetan federazioko lizentzia (EIF-FVN eta FNN-NIF) eta eskatutako gutxieneko marka duten igerilariak soilik hartu dezakete parte, honek eskubidea ematen die 5. puntuan (PROBEN PROGRAMA) adierazitako edozein probetan parte hartzeko, 6.5 puntuak ezarritako muga bakararekin.

6.3. Parte-hartzeko markei baliagarritasuna emango zaie 2017ko urriaren 1etik aurrera.

6.4. Klub bakoitzak nahi beste igerilari aurkeztu ditzake proba bakoitzean.

6.5. Igerilari bakoitzak buruz buruko HIRU probetan parte har dezake, erreleboez gain.

6.6. Klub bakoitzak talde bat aurkeztu ahal izango du erreleboetako proba bakoitzeko, eta jarritako edozein adinekoak izan daitezke taldekideak, eta igerilariak buruz buruko proba batean parte hartu beharko dute.

7. GUTXIENEOAK. 25 metroko igerilekuan eta kronometro elektronikoarekin

EMAKUMEAK			GIZONAK	
2004	2003		2002	2003
21:01,34	20:21,43	1500 m. libre	19:23,08	20:02,54
11:00,72	10:39,81	800 m. libre	10:03,72	10:24,20
05:22,27	05:12,07	400 m. libre	04:53,86	05:03,83
06:12,71	06:00,01	400 m. Estiloak	05:33,74	05:46,00

8. IZENEMATEAK

8.1. Klubek bere Federazioari (Euskadikoa edo Nafarroakoa, egokitzen zaienaren arabera), bere Federazioak emandako ohiko formatua erabiliz.

8.2. Klub bakoitzak bere aurre-izenemateak bidaliko ditu (ohiko posta zerbitzua, posta elektronikoa edo faxa) dagokion Federazioari (Euskadikoa edo Nafarroakoa). Hauek jasotzeko epea otsailaren 27ko (asteartea) 10:00etan amaituko da, eta ez dira ordu eta egun honen ostean jasotakoak onartuko.

8.3. **Araudi honetako 6. puntuan jasotako parte-hartze baldintzak betetzen ez badira izen-emateetan klubek ez dute abisurik jasoko, eta beraiek izango dute igerilariaren edota bere erreleboaren parte hartzeko ezintasunaren erantzule bakarrak. Federazio antolatzaileak ez dira baldintzak ez betetzeak ekar ditzakeen gastuen erantzule izango.**

8.4. EIF-FVN edo FNN-NIF-ek izen emateen behin-behineko zerrenda bat argitaratuko dute bere webgunean (www.eif-fvn.org edo www.fnn-nif.com) otsailaren 28an, asteazkena. Akatsik balego zerrendotan EIF-FVN edo FNN-NIF-ri eman behar zaio berri martxoaren 1eko, osteguna, 12:00ak baino lehen. Momentu horretatik aurrera ez da onartuko inolako erreklamaziorik.

8.5. Txapelketa EAE-n jokatzeko bada, EIF-FVN Federazioaren barruan dauden klubek izenemate gastuen kontzeptupean txapelketaren garapenaren gastuen banaketa proportzionala ordaindu beharko dute izen-emate guztien artean, Asanbladak hartutako akordioa dela eta.

9. TXAPELKETA FORMULA

9.1. Serieak marken arabera osatuko dira, jaiotze-urtea kontuan hartu gabe.

9.2. Erlojuaren aurkako sistemaren bidez igeri egingo da.

10. BAJAK ETA ERRELEBOEN ORRIAK

10.1. Bajak eta erreleboen orriak idatziz eta inprimaki ofizialetan komunikatuko dira. Hauek egoki beteta eman beharko dira txapelketako idazkaritzan sesio bakoitza baino ordu erdi lehenagora arte.

10.2. Bajak talde bakoitzeko ordezkari edo entrenatzaileak (txapelketa honetarako baimenduak izan beharko dute) eman beharko ditu, seriearen zenbakia, igerilariaren izena eta kalea zehaztuz.

10.3. Igerilari batek, izena emana duen proba batera ez badu bere burua aurkezten, baja aurreko puntuan azaldu bezala aurkeztu gabe, ezin izango du sesio horretako beste probetan parte hartu (erreleboetakoetan ere ez) eta ezin izango da ordezkatu.

10.4. Parte-hartzaileen zerrenda publikatu ondorengo bajek 2 euroko isuna izango dute. Igerilari batek ez badu bere burua aurkezten proba batera (epe eta forma egokian baja aurkeztu gabe), bere klubak 10 euroko isuna ordaindu beharko du.

11. SAILKAPENAK ETA PUNTUAZIOAK

11.1. Sailkapen bat egingo da banakako proba eta urte bakoitzeko.

12. GARAIKURRAK ETA SARIAK

12.1. Proba eta urte bakoitzeko lehenengo hiru sailkatuei domina emango zaie.

13. ZIGORRAK ETA AZKEN OHARRA

13.1. EIF-FVN/FNN-NIF federazioek egokien deritzeten zigorrak ezar ditzakete marka minimoetan edota beste edozein betebeharretan datuak faltsutu direla egiaztatzen bada.

13.2. EIF-FVN/FNN-NIF federazioek Txapelketako Zuzendari bat izendatuko dute txapelketa honetarako, bera izango da txapelketako aginte nagusia, bai txapelketaren antolaketan eta baita erreklamazioetan, txapelketako Epaile Nagusiaren agintean interferentziarik egiten ez dutenean.

12.3. Araudi honetan aurreikusita ez dagoena, EIF-FVN edo FNN-NIF federazioaren (txapelketa jokatzeko den lekuaren arabera), edo bere kasuan, RFEN-en txapelketa araudi orokorraren bitartez arautuko da.

12.4. Federazioek aukera dute bere babesleei kirol-materiala saltzeko stand bat jartzen uzteko.